

CHRIS KRAUS

Pelikulak lehen eta gero

2021.09.10

2022.01.23

Tabakalera
Lau Pareta

In Order to Pass, 1982
Terrorists in Love, 1983
The Golden Bowl, or Repression, 1984-88
Foolproof Illusion, 1986
Voyage to Rodez, 1986
How to Shoot a Crime, 1987
Travelling at Night, 1990
Sadness of Leaving, 1992
Gravity and Grace, 1995

Chris Kraus
Gravity and Grace
1995
Fotograma



Chris Kraus. Pelikulak lehen eta gero erakusketa Tabakalerako udazkeneko erakusketen zikloaren baitan dago. Horiiek, zinemaren eta adierazpen artistikoen arteko harremana lantzen dute.

Oraingo honetan, erakusketak gure zentroarentzat garrantzitsuak diren bi alderdi elkartzen ditu: ikus-entzunezkoen ekoizpena eta literatura-sorkuntza, azken hori fikziora zein testu kritikoak idaztera zuzenduta. Bi alderdiak bereizezinak dira idazlearen eta zinemagilearen lanean; izan ere, haren film asko testu eta idatzi teorikoetatik sortzen dira, eta bere testuek, aldiz, bere filmak, irudiak eta protagonistak dituzte oinarri. Esan daiteke Krausen kasuan zinema eta testua txanpon beraren bi aldeak direla.

INDEX Swedish Contemporary Art Foundation erakundeak Stockholmen erakusketa honen lehen edizioa antolatu zuen eta Tabakalerak erakunde horrekin izandako lankidetzari esker, Estatuan lehen aldiz Chris Krausen obra aurkezteko aukera izan du. Erakusketako lanen bidez, Krausek arte-sistemaren eta zinema-munduan indarrean dauden baliozkotze- (edo bazterketa-) mekanismoen inguruan hitz egiten du, eta ez dira falta autoerreferentzialtasuna, ohar pertsonalak edo giro artistikoari egindako zuzeneko aipamenak. Hori guztia ikuspegi feminista indartsu batek zeharkatuta, non umorea eta ironia nonahi aurki daitezkeen. Marti Manen erakusketako komisarioak adierazten duen moduan, *Chris Kraus. Pelikulak lehen eta gero* Kraus kultur ikono gisa aurkezten duen proiektua da *I Love Dick* eleberraren eta gerora telesail bihurtutakoaren arakastatik eratorria, hein handi batean.

Ohikoa den moduan, erakusketako edukietan sakontzeko jarduera-programa bat antolatu da. Aipagarriak dira arte-kritika literatura-genero gisa hartzeari buruzko mahai-ingurua, eta Chris Krausentzako gutun zuria; azken hori Tabakalerako zine-aretoan proiektatuko da. Gainera, erakusketa-aretoan bertan bisita gidatuak eta Arte-makina arte garaikidera hurbiltzeko ikastaroa eskainiko dira.

Tabakalera

Donostia/San Sebastián
2021eko iraila

CHRIS KRAUS

Pelikulak lehen eta gero

Chris Kraus ikono kulturala da. Idazlea, editorea eta arte-kritikaria da, eta argitaratu dituen eleberrietako batzuk erreferente bihurtu dira esperientzia subjektiboak teoriarekin eta artearekin uztartzeari dagokionez. Bere eleberrietan arte-kritikak aurki daitezke, eta bere lan teorikoek eguneroko esperientziekiko konexioak eskaintzen dituzte. Horrez gain, Chris Kraus zinemagilea ere bada, eta hainbat pelikula ekoitzi zituen; horietan, hankaz gora jartzen zituen aurrez konfiguratutako formatuak eta ezagutzaren sorkuntzarekiko lotura emozionalak ulertzeko moduak.

Nola ezagutu mugak? Nola sentitu ikusten dugun hori? Nola ulertu sentitzen dugun hori? Chris Krausek porrota, desira, obsesioa, etsipena eta autoeraikuntza landu ditu bere obretan, eta horretarako, askotariko formatuak eta praktika kulturalak erabili ditu. Idazle gisa ezagunagoa bada ere –fikzioa, teoria, kronika, filosofia eta ikuspegi politikoa uztartzeko gaitasun nabarmena du–, erakusketa honek Chris Krausek 80ko eta 90eko hamarkadetan egindako filmak ditu ardatz.

New Yorkeko eszena artistiko eta filosofikoaren parte gisa, Krausek askotariko irakurketak zituen film sorta bat ekoitzi zuen. Bere pelikulak ez dira genero zinematografiko jakin batean kokatzen, eta ez zuten lortu Chris Krausek nahi besteko zabalkundea. Alabaina, sektoreko beste kide batzuek –gizonezkoak denak– ez zuten arazorik izan arrakasta eta ospea lortzeko. Honek guztiak Krausen porrota eragin zuen, nahiz eta gerora hori bihurtu zen literaturan murgiltzeko arrazoia. Liburu askotan erreferentzia zuzenak egiten dizkie bere pelikulei eta haiekin gertatutakoari. Adibidez *Gravity and Grace* (1996) pelikularekin izandako gorabeherak dira bere bigarren eleberriko (*Aliens & Anorexia*) gai nagusiak. Bere literatura osoan aurki daitezke bere pelikulei eta mugimendudun irudiekien osatutako piezei

eginiko zeharkako erreferentziak. Izan ere, Chris Krausen idatzizko lana esperientzia zinematografikotik oso gertu dago: zinemari erreferentzia egiten dioten eta zineman lan egiten duten pertsonaiak agertzen dira bere lanetan, baita tradizio zinematografikoan oinarritutako deskribapen eta karga bisual handiko tramak ere. Arlo zinematografikotik ematen dio forma narratibari, eta, aldi berean, arlo filosofikoak eta testualak definitzen dute Chris Krausen pelikulen abiapuntua.

Chris Kraus. Pelikulak lehen eta gero erakusketan, Chris Krausen pelikula-ekoizpen osoa ikus daiteke (1982-1995). Pelikulekin batera, zinema eta literatura uztartzeko duen moduaren zenbait adibide ere badaude ikusgai. Bere zenbait eleberri (*I Love Dick*, *Aliens & Anorexia*, *Torpor* eta *Summer of Hate*) eta saiakeratako (*Where Art Belongs* eta *Video Green*) orrialdeak ere biltzen ditu erakusketa honek, eta bertan agerian geratzen da zer-nolako gaitasuna daukan Krausek zinematik literaturara salto egiteko, eta gero berriro zinemara itzultzeko, hainbat artista, zinemagile, teorialari eta idazleri erreferentziak egiten dizkien bitartean. Egitura zinematografikoa duten liburuak eta fikzioa errealtatearekin lotzen duten pertsonaiak ikus ditzakegu. Egitura literarioa duten pelikulak ere badaude, esaterako, Simone Weil eta Antonin Artaud idazleei erreferentzia egiten dietenak. Chris Krausen pelikulak erakusketan ikus daitezke, baina bere eleberriak eta idatzi teorikoak irakurrita ere senti daitezke. Aukera baten zein bestearen alde egin, denbora behar da idazle eta zinemagile hau ezagutzeko. Denbora behar da ikusteko bere bizitza eta esperientziak agerian jartzen dituela bere burua eraldatzeko, ispilu edo aukera, hitz eta sentimendu multzo, mundua ikusteko eta partekatze modu bihurtze aldera.



Chris Kraus
Foolproof Illusion
1986
Fotograma



Chris Kraus
How to Shoot a Crime
1987
Fotograma

Idazlearen eta zinemagilearen ideiak, hau da, bere ekoizpena norbera izateko erabiltzen duen artistaren ideiak, egia pertsonalaren sentimenduarekin lotzen ditu Chris Krausen pelikula eta liburuak. Krausek informazio biografikoa fikziorako material erabilgarri gisa ikusten du. Gainera, fikzioa ere errealtate bihurtzen du, pertsonak eta pertsonaiak uztertuz, gizakiak eta irudi publikoak nahastuz. Gorputzek, begiradek eta rol-aldaketek pelikula-paisaia berezia sorrarazten dute, gertukoa baina aldi berean urrunekoa: fikzioak badaki fikziozkoa dela eta performatibotasunak bere burua ikusten du antzetzten.

Chris Krausentzat, antzeztea (idazketa edo filmazioa ia proiektzio pertsonal gisa ulertzea) bere barneko informazioa kanporatzeko modu bat da, jakinik publiko bat dagoela eta horrekin erlaziona daitekeela. Aldi berean, Krausek uste du sormen-praktika beste batzuen lana aintzatesteko sistema bat dela: bere pelikulak eta liburuak erreferentziak, aipamenez eta ezagutza kolektiboz beterik daude, eta horiek guztiek agerian uzten dute beste pertsona batzuen eragina.

Erakusketako pelikuletan askotariko topaketak ikus daitezke: testu-geruzak dituzten ariketa esperimentaletatik hasi eta egitura narratibo hautsietaraino, egoera performatiboetatik hasi eta eraikuntza bisualetaraino, pelikula amateurretatik hasi eta zinema profesionaleraino, teoriatik hasi eta praktikaraino, desiratik hasi eta frustrazioraino. Chris Krausen pelikulak filosofiatik eta bizitzaren sunsikortasunetik datozen askotariko ideietara gerturatzen dira, modu trinkoan. Gaur egun atzera begirako bat egin eta pelikulak zenbait hamarkada beranduago ikusteak aukera ematen digu historikotasunari, distantziari, nostalgiari eta hausnarketei buruz pentsatzeko; eta, aldi berean, gaur egun oraindik ere indarrean dauden botere-

ideiak eta -harremanak aurkituko ditugu bertan. Krausek ahalmena dauka errealitatea fikziora eramateko eta material biografikoa eduki narratibo gisa erabiltzeko; hori argi ikusten da bere ekoizpen zinematografikoetan. Bere pelikuletan agertzen diren pertsonaia batzuk historiako une eta leku jakin batzuk ere badira: Chris Krausen pelikulak pentsamendu filosofikoz eta praktika prekarioz beteriko *underground* eszena baterako memoria-biltegi gisa uler daitezke.

Chris Krausek pelikulak egitea erabaki zuenerako, konpromiso sendoa zuen testuarekin. Horren adibide argia da bere lehen pelikula —*In order to pass*—. Bertan, Krausek filosofo bati eskatzen dio pelikularako berariaz egindako saiakera bat idazteko, memoriaren eta hausnarketaren arteko desberdintasunari buruzkoa. Hortik ateratako testua pelikularen egitura bihurtu eta pelikulan bertan txertatzen da. Testuak ilustratzen ditu irudiak, eta irudiek ilustratzen dute testua. Esan dezakegu Chris Krausen pelikulek harreman hori dutela ardatz.

Chris Kraus. Pelikulak lehen eta gero erakusketan Chris Krausen pelikulak ikus daitezke, baina artxiboaren, erakusketaren eta arlo zinematografikoaren arteko ikuspegi batetik. Bisitariak pelikulak monitoretan edo proiektatuta ikus ditzakete, eta irakurri ere egin ditzakete liburuetan jasota daudenean. Horrez gain, liburuak proiektatu egingo dira, Krausek egin bezala, idatzizko lanak pelikuletarako material bihur daitezzen. Chris Krausen pelikulek nortasunaren pertzepzio kaleidoskopiko bat eskaintzen dute. Aniztasuna ikus dezakegu, baita hizkuntzen nolabaiteko justapozizioa eta definizioak hausteko nahia ere. Halaber, ia punk gisa defini dezakegun jarrera horrek badu beste alde bat ere —beste alde bat dela esan badaiteke—: erreferentzia filosofikoz eta aipamen literarioz beteriko sistema konplexu bat, eta ekintza politikorako sare bat, nortasunean oinarritua. New Yorkeko emakume batek 80ko eta 90eko hamarkadetan halako konplexutasuna erakustea izan zen, hain zuzen, Chris Krausen pelikulen banaketak eta aurkezpenak porrot egitearen arrazoietakoa bat: pelikulak konplexuak eta sailkatzeko zailak dira. Bere banakotasunak eta hizkuntza askoren erabilerak eskaintzen duten ahotsa ez da erraz definitzeko modukoa. Urte asko igaro ondoren, Chris Krausen pelikulak irudi azkarrez eta nortasun aldakorrez osatutako paisaia batekin elkarreraginean daude; pertsonaia sozialak eta geruza ugari eraikitzen dituzte.

Marti Manen, Bronwyn Bailey-Charteris

Pelikulen zerrenda

Gravity and Grace, 1995

Bideora transferitutako 16 mm-ko
pelikula
89'

Sadness of Leaving, 1992

¾ eko bideora transferitutako Super-8a
26'54"

Travelling at night, 1990

Bideo digitala
11'54"

How to Shoot a Crime, 1987

Zuzendarikidea: Sylvère Lotringer
Bideo digitala
28'50"

Foolproof Illusion, 1986

Video digital
17'41"

The Golden Bowl, or Repression, 1984-88

¾ eko bideora transferitutako 16 mm-ko
pelikula
12'23"

Terrorists in Love, 1983

¾ eko bideora transferitutako Super-8-a
5'20"

In Order to Pass, 1982

¾ eko bideora transferitutako Super-8-a
26'54"

Voyage to Rodez, 1986

Zuzendarikidea: Sylvère Lotringer
Bideora transferitutako 16 mm-ko
pelikula
13'58"



Chris Kraus

*The Golden Bowl, or
Repression*
1984-88
Fotograma

Jarduera-programa

Kameleoia Gara!

Lau Pareta

Familientzako arte-lantegia

Azaroak 16 11:00 EU/ES

Abenduak 18 11:00 EU/ES

Arte-makina

Lau Pareta

Arte garaikidera hurbilketa

Azaroak 11 18:00 **Estíbaliz Sádaba**/ES

Bisita solasaldiak

Lau Pareta

Azaroak 18 18:00 ES

19:00 EU

Abenduak 23 18:00 ES

19:00 EU

Hitzaldia

Online

Abenduak 15 19:00 **Chris Kraus, Martí Manen**

Mahai-ingurua

Z aretoa

Urtarrilak 14 18:00 *Kritika literatura-genero gisa*

Gutun zuria: Chris Kraus

Zinea

Abenduak 18 19:00 *Reportero*, **Bernardo Ruiz**
Mexiko, 2012, 71'



Chris Kraus

Terrorists in Love

1983

Fotograma

TABAKALERA



**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**

—

Andre Zigarrogileak plaza, 1
20012 Donostia/San Sebastián

Erakusketa-aretoaren ordutegia

Asteartea - Igandea
12:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00
Astelehenetan itxita

Informazioa

T +34 943 118 855
E info@tabakalera.eus

Bulegoak

T +34 943 011 311
E tabakalera@tabakalera.eus

tabakalera.eus

*Chris Kraus. Pelikulak lehen eta gero Tabakaleraren eta Stockholmeko
Index Foundationen arteko koprodukzioa da.*

Index